



2021-11-6

**HEZKUNTZA PUBLIKOAREN ALDE  
PRIBATIZAZIOARI EZ!**  
**(manifestazioaren amaieran irakurriko den adierazpena)**

**Guraso, ikasle, irakasle, hezitzale, langile eta gurekin bat egin duzuen norbanako eta eragile guztiei zorionak gaur Bilbora etortzeagatik eskola publikoa aldarrikatzera.**

Euskal Eskola Publikoaz harro gaudela esateko eta hezkuntza publikoaren alde mobilizatzeko bildu gara gaur. Dugun hezkuntza sistema dualak (erdia publikoa eta erdia pribatu-itundua) eskola publikoaren kaltean jokatzen duela salatu nahi dugu, segregazioa, bi mailako ikasleak eta gizarte haustura sortzen dituelako. Hezkuntzak ezin du merkatuaren menpe egon, hezkuntzarako eskubidea ezin da egon familien ahalmen ekonomikoaren baitan.

Bi hezkuntza-sareak ez dira berdinak eta ezin dira parekatu bere tratamendu politikoan eta babes mailan. Eskola publikoa da inklusiboa den sare bakarra, gizarte kohesioari ekarpen handiena egiten diona eta gehien euskaldundu eta euskalduntzen duena.

Horrexegatik, hona hemen gure aldarrikapenak:

- 1- **Eskola publikoak administrazioaren lehentasun osoa izan behar du.**
- 2- **Eskola bakarra aldarrikatzen dugu**, publikoa, euskalduna, inklusiboa.
- 3- **Hezkuntza pribatu-itunduari mugak jartzeko garaia da.** Ekimen pribatu guztiak diru publikoarekin sostengatzen dituen politikekin bukatu behar da. Jaiotze-tasa behera doan une honetan, Administrazioari **diru publikoaren erabilera bidezkoagoa eta efizienteagoa eskatzen diogu**.
- 4- Eusko Jaurlaritzak **ikastetxeen publifikazioa ahalbideratuko lukeen araudi adostua sortu behar du.**
- 5- **Euskarazko murgiltze eredua orokortu** behar da eta diru publikoarekin ez finantzatu euskalduntzen ez duten eta integrazioaren kontra jokatzen duten hizkuntza-ereduak dituzten ikastetxe pribatuak.

Ondorioz, interpelazioa egiten diogu Eusko Jaurlaritzari egoera diskriminatzaile honetara iristeko burutu dituen hezkuntza politikengatik eta baita sare pribatuko ikastetxeei ere, beren pribilegioak mantendu eta segregazioa areagotzen laguntzen dutelako.

EAEn Hezkuntza Akordio berri bat egin nahi den momentu honetan, hezkuntza-sareez, finantzazioaz, murgiltze ereduaz eta eskola-segregazioaz hausnartuko behar da gardentasunez sare publikoko eragileekin. Ez dugu nahi egungo sistema duala legitimatuko duen akordiorik, eskola publikoa sistemaren erdigunea bihurtuko duena baino, sistema inklusibo, euskaldun, ekitatibo eta ez-segregatzaile baterantz aurrera egiteko ezinbestekoa dena. Etorkizuneko jendarte eredua dago jokoan.

Bukatzeko, Euskal Eskola Publikoaz Harro Topagunetik denona eta denontzat den eskola publikoaren alde egin eta eskola-segregazioaren kontrako eta gizarte kohesioaren aldeko konpromiso argia azaldu dezala eskatu nahi diogu Jokin Bildarratz sailburuari.

**Zorionak guztioi gaur gurekin bat egiteagatik eta adi hemendik aurrera egingo ditugun ekimen eta deialdiei.**

**DEITZAILEAK:** Gasteizko, Oiongo, Bilboko, Santurtziko, Oarsoaldeako, Astigarragako, Zabaleko bizirik Amurrioko, Donostialdeako, Lasarte-Oriako plataformak, Ordiziako Euskal Eskola Publikoko Komunitateak eta Goieskola, EHIGE, HEIZE, IKASLE SINDIKATUA, IKASLE EKINTZA, GAZTE KOMUNISTAK, LAB, STEILAS, CCOO, ESK, CNT

**ATXIKIMENDUAK:** Osasun publikoa aurrera!, Bigite Elkarte - Asociación Vizcaína de Integradoras/es Sociales y Animadores/as Socioculturales, Ongi etorri errefuxiatuak (Gipuzkoa), Emigrados Sin Fronteras, Komite Internazionalistak, Zirika! herri gunea, Mekauen Konpartsa Internazionalista, Gasteizko Alde zaharreko Goian kultur eta kirol elkartea, FEMINISTALDE taldea, AMUGE, Bizkaiko Emakumeen Asanblada, ELA, Ikasle Abertzaleak.

**\*Informazio gehiago: 605737968 ( Maribel), 669165835 (Eli)**

**POR LA EDUCACIÓN PÚBLICA  
¡NO A LA PRIVATIZACIÓN!**

**(Declaración que se leerá al final de la manifestación)**

**Familias, profesorado, educadoras, trabajadores y personas y organizaciones que os habéis unido a nuestra convocatoria: enhorabuena por venir hoy a Bilbao a reivindicar la escuela pública.**

Queremos decir bien alto que estamos orgullosas y orgullosos de la Escuela Pública Vasca. El sistema educativo dual que tenemos (mitad público, mitad privado-concertado) margina a la escuela pública, creando segregación, alumnado de dos niveles y fractura social. La educación no puede estar sujeta a la lógica del mercado, el derecho a la educación no puede depender de la capacidad económica de las familias. La escuela pública es la única inclusiva, la que realiza la mayor aportación a la cohesión social y la que más ha euskaldunizado y euskalduniza.

Por ello, queremos reivindicar que:

1. **La escuela pública debe ser la prioridad absoluta de la administración.**
2. **Reivindicamos una escuela única**, pública, euskaldun e inclusiva.
3. **Es hora de poner límites a la educación privada-concertada.** Hay que acabar con la política que sustenta con dinero público todas las iniciativas privadas sin distinción. En el contexto actual de bajada de natalidad, exigimos al Gobierno vasco una utilización más justa y eficiente de los recursos públicos.

4. El Gobierno Vasco debe crear una **normativa consensuada que permita la publificación de los centros**.
5. Hay que **universalizar el modelo de inmersión lingüística en euskera** y no financiar con dinero público a los centros privados con modelos lingüísticos que no euskaldunizan y van, pues, en contra de la integración.

Interpelamos al Gobierno Vasco por sus políticas educativas que nos han llevado a esta situación discriminatoria y también a los centros de la red privada que aprovechan las ventajas de esta situación para mantener sus privilegios y aumentar la segregación.

En estos momentos en los que se está negociando un nuevo Acuerdo Educativo en la CAV pedimos un proceso transparente de reflexión sobre las redes educativas, la financiación, el modelo de inmersión y la segregación escolar con la participación de representantes de la red pública. No queremos un acuerdo que legitime el actual sistema dual, sino uno que convierta a la escuela pública el centro del sistema, imprescindible para avanzar hacia un sistema inclusivo, euskaldun, equitativo y no segregador. Está en juego el modelo de sociedad del futuro.

Por último, desde Euskal Eskola Publikoaz Harro Topagunea pedimos al consejero Jokin Bildarratz que apueste por una escuela pública de todos y para todos y que muestre un compromiso claro contra la segregación escolar y por la cohesión social.

**Enhorabuena a todas y todos por uniros hoy a esta reivindicación. Estad atentas a las siguientes iniciativas y convocatorias.**

**CONVOCAN:** Gasteizko, Oiongo, Bilboko, Santurtziko, Oarsoaldeako, Astigarragako, Zabaleko biziak Amurrioko, Donostialdeako, Lasarte-Oriako plataformak, Ordiziako Euskal Eskola Publikoko Komunitateak eta Goieskola, EHIGE, HEIZE, IKASLE SINDIKATUA, IKASLE EKINTZA, GAZTE KOMUNISTAK, LAB, STEILAS, CCOO, ESK, CNT

**ADHESIONES:** Osasun publikoa aurrera!, Bigite Elkarte - Asociación Vizcaína de Integradoras/es Sociales y Animadores/as Socioculturales, Ongi etorri errefuxiatuak (Gipuzkoa), Emigrados Sin Fronteras, Komite Internazionalistak, Zirika! herri gunea, Mekauen Konpartsia Internazionalista, Gasteizko Alde Zaharreko Goian kultur eta kirol elkartea, FEMINISTALDE taldea, AMUGE, Bizkaiko Emakumeen Asanblada, ELA, Ikasle Abertzaleak.

**\*Más información: 605737968 ( Maribel), 669165835 (Eli)**